

noaua

**Erraustegiaren
Aurkako Mugimenduak
alternatiba bat
iragarri du**

**Salbatore Parrokiako
erlojua auzolanean
lehengoratuko dute**

**Martxoaren 20an
hasiko da XIII. Soinurbil**



**“Gure sinaduraren bidez,
babesa eta bultzada ematen diogu
maiatzaren 7an egingo
den herri kontsultari”**

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK
MENDEBALDEKO KOSTA
 Irteera Lasarte-Oriatik, NOAA BIDAIAK-ek lagunduta



2 plaza gelditzen dira!

MAIATZAK 14-28 ezagutu...
 Los Angeles
 Grand Canyon
 Las Vegas
 Yosemite
 San Francisco
 eta askoz gehiago!

 **NOAA BIDAIAK**
 Hoodrome Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa
 T. 943 373 613 | info@noaabidaiak.com
 www.noaabidaiak.com


FUNERARIA GONZALEZ
 EHORZTETXEA
 munalurra 8, USURBIL

AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:
- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK, UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

943 36 21 63 (24H)
 AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



- BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 16, OSTEGUNA - POTXOENEAN

1. deialdia 18.30ean / 2. deialdia 19.00etan

GAI-ZERRENDA:

- 1) 2016ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2017ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak



Albiste iruditan

“Usurbil 0.0”, Gipuzkoako alkateen interesekoa

Hondakinen kudeaketa eredu propio integral baterantz jotzeko Usurbilgo Udalak abenduaren 22an aurkeztu zuen “Usurbil 0.0” bide-orria gizarteratzen eta herritar, eragile zein adituen ekarpenak biltzen ari dira hilabeteotan. Aurreko ostegunean Potxoenean aurkeztu zien Udalak egitasmoa Gipuzkoako hainbat alkateei. Bilkuran parte hartu zuten, Adunako alkate eta Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakariak, Segura, Berastegi, Oñati, Antzuola, Elgeta eta Oiartzungo alkateek. Oiartzun, Zaldibia eta Hernaniko udaletako zinegotzi bana ere bertan izan ziren. Egitasmoak interesa piztu du udal ordezkari guztion artean.

Errepideko segurtasuna bermatzeko eskaera Foru Aldundiari

N-634 errepidearen egoera berraztertzeko bilera egin zuten Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitu-



Herrialdeko hainbat udal ordezkari Potxoenean batu ziren, “Usurbil 0.0” egitasmoa ezagutzeko xedez.

ra Sailak astelehenean Donostian. “Bilera horretan, errepide horrek usurbildarrentzako dituen puntu beltzen gaineko kezka helarazi dio Xabier Arregi alkateak Aldundiari. Sortzen diren arazoei aurre egin asmoz, Usurbilgo Udalak planteamendu orokorra jarri du mahai gainean, eta hitzarmen batean jasotzeko proposamena

egin dio Bide Azpiegiturak sailari. Ekin-tza plan bat jasoko luke hitzarmen horrek, Usurbilgo Udala litzateke bultzatzailea eta beste eragileen parte hartzea ere aurreikusiko luke, esate baterako, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa saila edota Euskal Trenbide Sarea (ETS)”, berri eman dute ohar bidez, Usurbilgo Udaletik.

Laburrean

Hilerri zaharra hustutzera doa Udala

Familiartekoen gorputz-hondarrak berreskuratu nahi dituztenek hiru hilabete-ko epea izango dute horretarako. Informazio gehiago, Udaleko zerga-bilketako leihatilan, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara.

Udal dirulaguntzak eskatzeko epea, zabalik

Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdira aurkezteko epea martxoaren 13ra arte egongo da zabalik. Udalak 168.000 euro bideratuko ditu.

Informazio gehiago, Udaletxean:
943 371 951 / usurbil.eus

“Sagarrondotik sagardora” ikastaroa Potxoenean

Larunbat honetan, “Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa”, Josu Osaren eskutik. 09:00etik 13:00era Potxoenean.

Informazio gehiago, Alkartasunan:
943 361 114 / alkartasuna.eus

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda, publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria:

Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Imanol Ubeda

“Sugarretan jaioak”

Born in flames (*Sugarretan jaioak*, 1983) filma eskaini zuten aurreko batean Donostiako Tabakaleran. Lizzie Borden zinegilearen lan hau harribitxi bat zela esan ziguten, zuzendariak berak aurkeztuko zuela gainera, eta hantxe bertaratu ginen.

*Zientzia-fikzio afrofuturista eta feminista. Gizarte patriarkalaren aurkako mezua, borroka armaturako dei femeni-
noa ere barne hartzen duena.* Hala zioen sinopsiak.

Lizzie Bordenen filma honela hasten da: Sozialdemokratiaren Iraultzak 10 urte bete ditu. Urteurrenean, bilakaera

ekonomikoaren onurak azpimarratu dituzte agintariek, eta iraultzak ekarritako ongizateaz mintzo dira hedabide nagusietan. Emakumeak, ordea, ez daude gustura. Iraultza horren onuretatik kanpo sentitzen dira. Lantokietan eta erabaki guneetan, gauzak berdin jarraitzen dute eurentzat. Gainera, emakumeen kontrako indarkeria ez da eten eta, egoera aldatuko den esperantza gutxi dutenez, defentsa brigadak antolatzen hasiko dira.

Beltz komunitatea ere haserredago. Iraultza eta gero ere, berdin jarraitzen dutelako.

Bi irriti lokal eta aldizkari bat

izango dira deskontetu honen bozgorailu. Bakoitzak ordea, bere ezaugarriak ditu. Bata, emakume zuri burgesen lekuko izango da. Bestea, beltz ikus-tezinen ahotsa.

Iraultzari buruzko ikuspegi ezberdina dute. Zuriak, agintarrietatik gertuago daude.

Emakume beltzak ordea, kritiko dira oso, eta hitzetatik ekintzetara pasatuko dira: us-tezko iraultza sozialdemokrata “irauli” asmoz, matxinada feminista armatua proposatuko dute. Baina matxinada antolatzen hasi orduko, Estatuko zerbitzu sekretuek liderra (protagonista nagusia) atxilotu eta

erail egingo dute.

Gertaera honek burges zuriak eta beltzak batzeko balioko du. Lider erailak hasitako bidea urratzen hasiko dira, elkarlanean.

Filma berezia da oso. Aktoreak ez dira profesionalak. Lau urtetan zehar filmatua izan zen eta aurrekontu txiki batekin ondua izan zen. Bazterreko film bat izanik ere (*underground* zirkuituan zabaldu zelako diot) badu berezia duen zerbait: 1983an eginitako film hau ikusi behar izan dut, gaur gaurko aldarrikapen feminista asko hobeto ulertu ahal izateko.

Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

Ika-Mika

Euskara gure egin dezagun

Argibideak zazpi hizkuntzetan dauzkan sukalde tresna (kazuela) erosi eta etxera eramandanean konturatu naiz euskara ez dela agertzen.

Egoera honen aurrean, Udalak duen Euskara Zerbitzura joan eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren bidez salaketa jarri dut.

Egunak aurrera doaz eta bi

hilabeteetara idatzi bat jaso dut non esaten duen, “nahiz eta orain arte gure produktuetan euskara ez azaldu, gaur egun erabiltzen ditugun 7 hizkuntzez aparte, gehigarri bezala sartzeko asmoa daukagu eta herri-tarren kexari balioa emateko asmoarekin, gai hau hil bukararako batzarrera bideratuko dugu bertan bideragarritasuna azter dezaten”.

Euskara zabaltzeko egin duan ahalegin txikiak emaitza ona jaso duela jakiteak poztu egin nau eta Bergarako enpresak bezero bat irabazi du.


Hamarkada batzuk igaro dira esaldi hau “euskararik gabeko Euskal Herria, Frantzia eta Espainiaren janaria” irakurri nuenetik.

Munduan hitz egiten diren hizkuntzen taldean euskara txi-

kia izan arren, ekintza nimitxo eta haundiak eginez XXI. mendera iritsi dela ikusten dugu. Beraz, berdintasunean sendo oinarritzen den apaltasun naturalez, Bernard Etxeparerekin bat eginez, jarrai dezagun berea duen Lurraldean, gurea dugun euskara irakurri, idatzi eta hitz egiten. Beste era batera esanda, euskaraz pentsatzen.

Orkatz

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

GHKren 2017rako tarifak auzibidean errekurrituko ditu Usurbilgo Udalak

Azken urteotan bezala, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) 2017rako abenduan onartu zituen tarifak auzibidean errekurritzea erabaki du Usurbilgo Udalak, “usurbildarren interesak defendatzeko”. Xabier Arregi alkateak joan den otsailaren 21ean dekretu bidez hartutako erabakia berretsi zuen udalbatzak gehiengo osoz, otsailaren 28an egin zuten osoko ohiko bilkuran. Erabakia EHBilduko ordezkariak babestu zuten. PSE eta EAJko ordezkariak aurka agertu ziren.



Irudian, GHK-ko bilkura bat. Argazkia artxibokoa da. Iturria: ghk.eus

Gobernu taldetik, alkateak argi zioen tarifok errekurritzeko arrazoi nagusia zein izan den. “Usurbildarren interesen eta hondakinen kudeaketa eraginkor eta jasangarriaren aurka doaz”, zioen Xabier Arregik. Gaineratzen zuenez, Europako zuzentarauak urratu eta tarifok ez dute behar bezala sustatzen gaikako bilketa. Hondakin gutxiago sortu arren (hondakinen %84 gaika bildu zuen Usurbilek 2015ean), sortzen ez dituen hondakinengatik ordaintzera behartua aurkitzen da udalerrri hau, beste urte batez.

Horregatik, Udalarentzat hain zuzen, ez da GHK-k onarturiko tarifak auzibidean errekurrituko dituen lehen aldia. Azken urteotako tarifekin gauza bera egin baitu. 2014koen kasuan gainera, auzibidean

UDALA

Xabier Arregi
alkatearen esanetan,
“usurbildarren interesen
eta hondakinen
kudeaketa eraginkor
eta jasangarriaren
aurka doaz”

errekurritu eta lehen instantzian aldeko epaia jaso zuen. “Auzitegi Gorenaren epaiaren zain gara, epaia irmoa izateko”, berri eman zuen alkateak, azken osoko bilkuran.

Oposizioa, GHKren erabakiaren alde

Oposizioko taldeak erabaki honen aurka agertu ziren. EAJ-ko bozeramaile Josune Urkolak,

Usurbilgo Udala GHK-ko kide dela, eta honenbestez, erakunde hartan gehien goz hartutako erabakiak Udalak errespetatu beharrekoak direla zioen. Ildo beretik mintzatu zen PSE-ko ordezkari Fermin Orue. Gaineratzen zuenez, Udalarentzat auzitegia ez, “GHK litzateke desadostasuna agertzeko lekua”.

Adierazpenon aurrean, alkateak Udala GHK-ko kide ez dela argitu zuen. Udala San Marko Mankomunitateko kide baita, eta San Marko bai, GHK-ko kide. Usurbilgo Udalak honenbestez, ez du zuzenean GHK-ko erabakiotan parte hartzerik izan. Gainera, alkateak gogorarazi zuenez, San Marko Mankomunitatean “behin eta berri erakutsi du Udalak bere desadostasuna”.

Bi lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

Operario 8 motako bi udal lanpostu betetzeko deialdia egin du:

■ Prozedura: lehiaketa-opsaketa irekiaren bidez.

■ Lan jarduna: urtero Udalak zehazturikoa, “horretarako lanpostuaren izaera eta behar bereziak izango ditu kontuan”.

■ Baldintzak: Europar Batauneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, 16 urte edukitzea eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Eskola ziurtagiria edo baliokideren bateko titulua edukitzea, C1 gidabaime-na izatea, diziplina-espeditente bidez inolako Administrazio Publikotatik kaleratuta ez egotea, zereginak egoki betetzea eragozten duen gaixotasun edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea, ezgaitasun edo batearazintasun egoeran ez egotea eta 1. hizkuntz eskakizunari dagozkion euskara-egagupenak dituela frogatu beharko du.

■ Azterketa probak: hautagaiek lau azterketa igaro beharko dituzte. Lehen ariketa teorikoa izango da (nahitaezkoa eta baztertzaila). Bigarrena, teoriko-praktikoa. Hirugarrena, praktikoa. Laugarrenaren emaitza, azkenik, Gai - Ez Gai bezala emango da.

Oposizioaren proba guztiak gainditu eta izendatuak ez diren izangai guztiak lan-poltsa batean sartuko dira, lortu duten puntuazioaren araberrako hurrenkerarekin, eta sail horretan sortzen diren aldian aldiko beharrak betetzeko erabiliko du Udalak.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ANTXETA

taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Tallak
36-60

INQUIETUD

IANTZI-DENDA



Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Andoaingo Udala, eskualde garapenerako lankidetzarako ordezkari

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek eskualdea sozioekonomikoki garatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 27an. Modu honetan, Beterri Buruntza eskualdeko udalen hitzarmenean Batzorde Eragileak Andoaingo Udala eskualdeko udalen arteko ordezkari izatea proposatu eta aho batez onartu zuten. Orain udalek babestu behar dute proposamen hau. Usurbilgo Udaleko udalbatzak aho batez onartu zuen, azken osoko ohiko bilkuran.

Gipuzkoarren partaidetzarako proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundiak gipuzkoarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu zuen joan den urtarrilaren 17an. Partaidetzaren eremuan udalerrirarteko sarea osatzea da asmoa. Usurbilgo Udalak erakunde arteko espa-



Beterri-Buruntzako alkateek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten.

zio honetara atxikitzea erabaki zuen aho batez, otsailaren 28an egin zuten osoko ohiko bilkuran. Atxikimendu honen zentzuzko konpromiso bere gain hartzea dakar Usurbilgo Udalarentzat. Besteak beste: modu aktiboan parte hartzea, dinamizatzea, foro teknikoak koordinatzea Espazioko organo edo egituretan eta bere funtzionamendua sustatzea; partaidetzako diru-laguntza larroei buruzko prozesuetan parte hartzea; partaidetzarako egitasmoak proposatu eta prak-

tika onak ezartzea; espazioko aurrekontuak ezagutzea...

Aldaketa, 2017ko Lanpostuen Zerrendan

Azken osoko ohiko bilkuran, aldaketa bat txertatzea proposatu zuen udal gobernu taldeak. "2017ko lanpostuen zerrendan lorazain ofiziala lanpostuari baldintza berezitan B gidabaimena dagokiola adieraztea" hain zuzen. Erabaki honen alde bozkatu zuten EHBilduk eta PSE-k. EAJ abstentitu zen.



Josune Urkola EAJko zinegotziak arduraldi partziala izango du Udalean

Usurbilgo EAJ-ko zerrendaburu eta udal talde bereko bozeramaile Josune Urkolak arduraldi partziala izango du aurrerantzean, Usurbilgo Udalean. Egun erdiko ardura, %50ekoa hain zuzen. Hala erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz, otsailaren 28ko osoko ohiko bilkuran. Udal gobernu taldetik argitu zuten, legez, "oposizioko alderdi nagusiari badagokio ardura hori". Bestalde, legegintzaldi hasieratik EAJ-k egin izan duen eskaera da honakoa. EHBilduk eta EAJ-k erabaki honen alde bozkatu zuten. PSE-ko ordezkaria abstentitu zen. "6.200 biztanleko udalerrirarte batean, 13 zinegotzirekin 3 liberatu egotea asko da, 3,5 gehiegi", zioen Fermin Oruek. Honenbestez, orain arte bezala, aurrerantzean, %100eko arduraldia izaten segiko dute EHBilduko eta udal gobernu taldeko kide Xabier Arregi alkateak eta bi alkate ordeek, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilletak. EAJ-ko kide Josune Urkolak %50ekoa.

Egokitzapena 2017ko udal aurrekontuan

Aldaketa honi lotuta, 2017ko udal aurrekontuko 9. artikulua egokitzea onartu zuen baita udalbatzak gehiengo osoz, aurreko asteko osoko bilkuran, EHBildu eta EAJ-ko udal ordezkarien aldeko bozkekin. PSE abstentitu zen. Zehazkiago esanda, 9.2. artikuluan liberazioen gaineko informazioa eranstea onartu zuten.

Igogailuen udal ordenantza, bertan behera

Otsailaren 13an Usurbilgo Udalak argitara eman zuen 2017ko udal diru-laguntzen deialdi berria. Udalak guztira 168.000 euro bideratuko ditu kultura, kirola, gizarte-gintza, nekazaritza eta abeltzaintza eta ingurumeneko proiektuak laguntzera. Eskabideak aurkezteko epea: martxoaren 10ak.

Orain, estreina gainera, igogailuak jartzeko laguntza txertatu du deialdi honetan. Horretarako, Udalak guztira 10.000 euroko diru-partida erreserbatu du. Diru-laguntza larro berri honen, 2002. urteaz geroztik



Igogailuak jartzeko laguntzak dirulaguntza bidez bideratuko direnez, 2002ko udal ordenantza bertan behera geratu da hasieraz.

igogailuak jartzen zituztenei banakako laguntzak emateko indarrean zegoen udal ordenantza bertan behera uztea ekarriko du. Otsailaren 28ko osoko ohiko bilkuran bide honetan lehen urratsa eman zuen udalbatzak; araudi hau

bertan behera uztea hasieraz onartu zuten aho batez.

Orain, espediente jendarraren jarri eta erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea zabalduko da, onarpen honen behin betiko izaera izan aurretik.

Erraustegiarentzako alternatiba bat aurkeztuko dute ostegun honetan

Martxoaren 4an Zubietan batzartu ziren Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko ordezkariak. Bilkuraren ostean iragarri zuten, erraustegiarentzako alternatiba aurkeztuko dute ostegun honetan bertan, hilaren 9an.

Alternatiba hau babesteko gainera, atxikimendu bilketari ekingo diote. Eta manifestazio erraldoia deitu dute, martxoaren 25erako, larunbata, Donostian. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Anoeta futbol zelai paretik. Leku berean, baina astebete lehenago martxoaren 18an aurkeztuko dute mobilizazio handi hau, herritarren parte hartzearekin deitu duten prentsaurreko masiboan. Honatx beraz Erraustegitaren Aurkako Mugimenduari datozen deialdiak:



Erraustegiari alternatiba aurkeztuko diote, eta hura babesteko manifestaziora deitu dituzte herritarrak: martxoaren 25ean Donostian.

- Martxoak 9, 11:00 Erraustegiaren alternatibaren aurkezpena Donostian.
- Martxoak 18, 12:00 Martxoaren 25eko manifestazioa bultzatzeko agerraldi masiboa herritarrekin, Donostiako Anoeta futbol zelai parean.
- Martxoak 25, 17:00 Erraustegiaren alternatiba babesteko manifestazioa, Donostiako Anoeta futbol zelai

paretik.

Mutiloako zabortegearen aurkako protesta

Goierri Bizirik plataformak prentsaurreko masiboa deitu du iganderako, martxoak 12, 12:00etan Donostiako Gipuzkoa plazan, "birziklapenaren alde, Mutiloako zabortegearen aurka". Hitzordura bertaratzeko deia egin diete gipuzkoarrei.

Errigoraren bi kanpainak, aldi berean

Nafarroa hegoaldeko produktuak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan eskuratzeko aukera dugu berriz. Oparo dator; aurreko urteetan, martxoan egin ohi duen oliba-olioaren eta maiatzeko kontserben kanpainak bateratu dituzte aurtengoan, gogorazten dutenez "urtean bi udaberri izango bagenitu, bigarrena ez litzateke berria izango" eta.

Horregatik Uztaberri bakarra izango dugu. Eta aipatu moduan berdea, baita. "Izan ere, lehenengoz, Eskutik Eskura eskaintzen diren produktu guzti-guztiak ekologikoan eskuratu ahal izango dituzu".

Eskaerak NOUA!n

- Eskaerak egiteko epea: mar-



errigora.eus web orrian edo NOUA!n egin daitezke eskaerak.

HEMEN DA UZTABERRIA

"Lehenengoz, eskaintzen diren produktu guztiak ekologikoan eskuratu ahal izango dituzu"

txoak 1-14.

- Eskaerak NOUA!ren egoitzan.
- Eska daitezkeen produktuak: 5 litroko oliba-olio birjina estra edo ekologikoa, pikillo pi-

perrak, zainzuriak, orburuak, barazki-menestra, potxak, tomate frijitua, barazki-, kalabaza-, porru- eta brokoli-kremak. Produktuok lote ezberdinetan erosteko modua izango da.

- Ordainketak, produktuak jasotzerakoan: oliba bidioen banaketa martxoaren 30-31n egingo dugu eta kontserbena ekainaren 1 eta 2an.

■ Informazio gehiago: NOUA!n (943 360 321 edo elkarte@noaua.eus) / errigora.eus

Aginagako Txokoetan, izen ematea zabalik

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak apirilko oporraldirako txokoak antolatu ditu haurrentzat Aginagako ludotekan. Zehazkiago esanda, egunotan: apirilaren 10, 11, 12, 18, 19, 20 eta 21ean. Goizez izango dira, 09:00-13:00 artean. 09:00-10:00 artean sartu ahalko dira txokoetan parte hartu nahi dutenek.

Izena martxoaren 17a baino lehen eman beharko da, aginaga@eskolatxikiak.org helbidera idatzita.

Txokoetako prezioa, apuntatu den haur kopuruaren arabera zehaztuko dute.

Ostiral honetan, gazteen batzarra

Alternatibak eraikitzen segitzeko bidean, batzarra deitu dute ostiral honetarako, martxoak 10, Aginaga, Usurbil eta Zubietako gazteek. Duela astebeteko saioan jai eredu jarraituko dugu", martxoaren 10ean, 17:30etan hasita Potxoenean. "Zuri ere, kezka hauek eta besteren batzuk aztoratzen bazaituzte, ez lotsatu, gerturatu, alternatiba elkarlanetik abiatuko dugu!", luzatu dute gonbita.

KzGunea-ko ikastaroak

Martxoan goizez, 09:00-13:00 artean irekiko dute.

- Martxoak 15-28, 09:00-11:00: "Ofimatika tresnak".
 - Martxoak 29, 09:00-11:00: "Programa informatiko onenak jaitsi".
 - Martxoak 30, 09:00-11:00: "Informatika lainoan. Bildu eta partekatu zure informazioa".
 - Martxoak 31, 09:00-11:00: "IKTeak bizitza hobetzeko". 943 023 684
- tutor.usurbil@kzgunea.net
Kale Nagusia, 37

Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarra, laguntza beharrean

Hala da. Baionako Bernat Etxepare, Iparraldeko euskal lizeo bakarra, txikia eta zaharkitua geratu da. Udaz geroztik, 2017-18 ikasturterako prest egongo den gune berria eraikitzen ari dira. 300.000 euro behar dituzte egoitza berria ekipatzeko. Gu guztion laguntza eskertuko lukete. Euskal Herri osora, eta orain Usurbila zabaldu duten "Euskararen sargartzea" elkartasun kanpainen parte hartzeraz animatzen gaituzte, lizeoek lerrootan eskaini duguten elkarrizketan.

Zer modutan baldintzatzen du zuen egunerokoa, egungo eraikinen egoerak?

Ihintza Ostolaza: Eraikin zaharra da, eta batez ere azken 5 urteotan oraino azkarkiago zaharkitua da. Gaur egun gure ikasleak 3 kolegio berrietatik heldu dira eta beraz gehienek ez dute eraikin prekariorik ezagutu, ikastolen bilakaera onaren seinale! Alde batetik, leku eskasia dugu: ikastalde bat prefabrikatu batean kokatua da eta horrez gain ikasleek ez dute, adibidez, aterperik kanpoan euria delarik lasai egoteko. Bestalde, aurtun, eraikinen parte handi bat estatu arras txarrean dago, berogailuarekin sekulako arazo ukan dugu, baita informatika sarearekin ere. Alabaina, beti erran dugu ez dela azala garrantzitsuena baizik eta mamia eta zinez, horrela sentitzen dugu, Etxeparek baduela bere arima, giroa. Eraikin berria eta



300.000 euro behar dituzte egoitza berria hornitzeko.

IHINTZA OSTOLAZA

"Gure lizeoaren azala edertuko eta egokituko dugu baina mamia ere indartu eta hobetu nahi dugu"

egokitua behar dugu Iparraldeak duen euskal lizeo bakarraren erronkari behar bezala erantzuteko.

Eraikitzen ari zareten lizeo berria irailerako prest izango duzue. Trantsizio hilabeteok nola ari zarete bizitzen?

Kanpaina bete-betean murgildurik gaude. Langile, guraso eta ikasleak buru-belarri ari dira sagarrondoak saltzen ezker-eskuin, eta indarra eman dugu ere Hego Euskal Herrian dirua biltzeko. Dena den, kanpaina hau diru biletaz gain gure proiektua ezagutzera emateko parada da, eta baita dugun bizi-nahia kutsatzeko ere. Gure lizeoaren

azala edertuko eta egokituko dugu baina mamia ere indartu eta hobetu nahi dugu.

Euskal lizeo bakarra izanik, Ipar Euskal Herri osoko ikasleak biltzen dituzue. Geroz eta gehiago dira, ikasketak euskaraz bideratzeko hautua egiten dutenak ezta?

Gure lizeoa, Seaskako eta ikastola sareko bakarra da. Beraz, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuko ikasle eta langileak biltzen gara. Bilakaera baikorra dugu kopurutan: batetik, ikastolek duten bilakaerari erantzuten diona, izan ere, gure eredu baita demografiaren bilakaera ezkorra den honetan goiti joaki den eredu bakarra (2000. urtean 100 ikasle genituen eta gaur egun 265 ikasle ditugu lizeoan. Seaskan, gaur egun 3.500 ikasle daude). Bestalde, bilakaera baikorra dugu ikastolen sarean ere: euskaraz ikasteko ibilbide osoa egitea ez baita betitiki arrunt naturala izan Seaskako ikas-

le guztientzako. Horrek erran nahi du, orientazio hautuengatik gure lizeora joaten ez diren ikasleek gain, Seaskako kolegioetatik etortzen den ikasleria gaur egun arras fidela dela, ez ditugula kolegioetatik lizeorako pasaian ikasleak galtzen, eskola elebidunetan gertatzen den bezala. Beraz, erran liteke Lizeoak, hezkuntza proiektu gisara, eta baita hein batean euskarak ere jendarte hizkuntza gisara, sinesgarritasuna irabazi dutela. Hortan da gure apustua.

Nola lagundu?

Elkartasun kanpaina honetan diru ekarpenak egiteko epea zabalik da apirilaren 7ra arte, NOAUA!n, Alkartasuna Kooperatiban, Lizardi liburudendan eta Udaregi Ikastolan. Diru ekarpenen truke etxean landatzeko sagarrondoak jasoko duzue. Etxean landatzeko tokirik ez baduzue, Baionako lizeo ondoan landatuko dute. Honez gain, eragile, elkarte, kooperatiba eta enpresei ere deia luzatzen zaie kanpaina honetan parte hartzeko. Honatx harremantarako telefono zenbakia: 688 639 910.

Apirilaren 8an Usurbilgo Dantza Egunean, Bernat Etxepare Lizeoko ikasle eta irakasleak Usurbilera etorriko dira. Laguntza emateko postua jarriko dute frontoian. betxepare.eus

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Patrimonia
lataitea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

“300.000 euro lortu behar baditugu, guztion laguntza ezinbestekoa izango da”

NOAUA! Lizeo berriak eragingo dituen gastuei aurre egiteko “Euskararen Sagartzea” elkartasun kanpaina abiatu duzue. Zergatik da ezinbestekoa guztion laguntza?

Ihintza Ostolaza: Guztion laguntza ezinbestekoa da motzean erranda 300.000 euro erdietsi behar baititugu 450 ikaslerendako eraikiko dugun lizeo berria ekipatzeko. 300.000 euro horiek errealak dira: lizeoak behar duen horniduraz gain (mahai, aulki, kirol ekipamendu, ordenagailu eta abar ...), barnetegia ekipatu behar baitugu. Gure ikasleak Iparralde osotik heldu direnez astea barnetegian pasatzen dutelako. Lizeo berriak, 150 ikaslerentzako barnetegia ukanen du eta hori ere ohez, matelasez, mahaiez, komunez eta abarrez hornitu beharko da. Demagogia merkerik egin gabe, Etxepare Lizeoa laguntzea, euskara eta gure eskualdeak euskaraz behar duen kalitatezko hezkuntza proiektua laguntzea da. Zentzuzkoa den laguntza, laguntza zintzoa da.

Elkartasun kanpainak dioen moduan, hazten segitzea duzue etorkizuneko erronka?

Haztea garrantzitsua da, euskarak bere lekua hartu behar duelako. Lizeoa eta euskarak lurraldean errotu, eremuak irabazi eta ongarrizatu behar ditu, elikatu. Haatik, laborantzarekin parekatuz gure eredia ez da nola-nahizko haztea, jasangarria izanen den eskola nahi dugu, osasuntsua eta gure lurraldea bazkatuko duena. Erromantikoa dela diote batzuek: hala da, baina erreala ere bai.

Lizeo berriak zer ekarpen eragingo dio Ipar Euskal Herriko euskarazko hezkuntza eskain-



450 ikasleentzako lizeoa eraiki eta hornitzeko laguntza premian dira.

IHINTZA OSTOLAZA

“Euskarak lurraldean errotu, eremuak irabazi eta ongarrizatu behar ditu, elikatu”

tzari?

Gure lizeoa da euskara ardatz duen lizeo bakarra, horrek erran nahi duen guztiarekin. Euskarari egiten dion ekarpena argia da: euskaraz ikasteaz gain euskaratik begiratu nahi diogu munduari, nahiz eta Frantses Hezkunde Nazionalako programak segitzen ditugun, gure lizeoak du bakarrrik euskararen herria aintzat hartzen, bai edukietan Euskal Kurrikuluma helburu izanik, baina baita gure ikasleei goi-mailako ikasketak euskaraz egiteko bidea irekitzen ere. Izan ere, Hego Euskal Herrian euskaraz ikastera ere bideratzen ditugu nahiz eta horretarako administrazioen trabak gainditzea ez den bate-re erraza.

Bertzalde, gure lizeoa euskararen arnagune da, euskaraz bizitzeko aukera den lizeo bakarra da. Izan ere, kopuruei behatuz, Iparraldean lizeo mailako adina (14-17 urte) duten ikasleen artean, %96-ak ez du inolako kontakturik euskararekin, %2-a elebidun sisteman da eta euskaraz hezten diren lizeotarrak, hots gure ikasleak

%2 baizik ez dira. Kontuan hartzen badugu ikastolatik ateratzen diren ikasleak direla bakarrik euskaldun oso, gure proiektua beharrezkoa dela argi da, Euskal Herrian eragile izanen diren herritar euskaldun prestatuak nahi baditugu.

Horrez gain, hezkuntza proiektu azkarra dugu: adar orokorraz gain, duela bi urte adar teknologikoa abiatu genuen 6 ikaslerekin, marketing eta enpresa kudeaketa arlokoa. Gainera, heldu den urtetik goiti adar profesionala irekiko dugu: Artisautza lanbideak, jendeari zerbitzu emateko eta herri bizitarako lanbideak, salmenta eta komertzio lanbideak. Azpimarratu behar da, eskainiko ditugun arloek, Iparraldean berehalakoan behar liratekeen profesional euskaldunen beharrari erantzuten diotela. Bestalde, gure ikasleek, Euskal Herri osoan diren enpresa eta erakundeetan eginen dituzte ikastaroak, eleanitzak, bederen elehirudunak (Gaztelera, Frantsesa, eta Euskara) izanik, Euskal Herriko eskualde orotan mugi daitezen da gure helburua. Azkenik, Etxeparek eskain dezakeena bere baloreak, eta eginmoldeak dira: sagartzean, sagarrondo eta sagar bakoitza ezberdina den gisan, ikasle guztiek beren lekua ukan dezaten eta lizeoan uros bizi daitezen da lehenetsi duguna betitik.

“Gure baitan sinesten dugu”

NOAUA! Hego Euskal Herrian euskaraz ikasteko ditugun aukeren eta Ipar Euskal Herrikoen artean alderik bada. Zein dira traba nagusiak?

Ihintza Ostolaza: Hegoaldeko euskaraz ikasteko eredu-erakunde ezberdintasun nabarmenenak gure aldean euskara ofiziala ez izateak sortzen dituen egoerak dira: lehena, gure ikasleek ezin dutela Baxoa (Selektibitatea) euskaraz osoki pasa (Historia-Geografia euskaraz onartua zaie eta azken hiru urteetan matematikak ere bai). Horri gehitu behar zaio, euskara Baxoan atzerriko 2. Hizkuntza gisara ebalatu dela (B1 maila galdegiten zaie). Programei begira, euskara ardatz duen ikuspegia (Euskal Herriko historia, geologia, ekonomia ...) ez da existitzen eta beraz gure baitarik integratzen dugu horretarako handik eta hemendik orduak ateraz. Finantza-eremuak, Falloux legea dela eta botere publikoek ezin dute eskola pribatua finantzatu, nahiz eta kontzertatua izanik ikastoletoleak irakasleak Hezkunde Nazionalak ordaindu (bertze langileak ez). Beraz, lekuko botereen borondatearen arabera laguntza izaten da eta legea zorrozki ala malguago aplikatuko duen Suprefetaren menpe. Haatik, gure proiektuan sinesten duen ekipoa, gurasa eta hein handienez ikasleak ditugu. Hori sekulako kapitala da, gure arteko kohesioa sortzen duelako eta proiektua jendarteratzearen beharrezko konbentzituak garelako. Gainera, lizeoan ikastolen egoeraren bilakaera ezagutu duten gurasa eta langileak gaude eta beraz bada-kigu enbidoa egitea zer den, hutsetik abiatuz ere, barkamenik eskatu gabe, bidea egiten dela. Pretentziorik gabe, gure baitan sinesten dugu.

Zubiarthean elkarteak kudeatuko du galdeketa



Aurreko larunbatean aurkeztu zuten ekimena.

Zubietar moduan “parte hartu nahi dugu, erabakitze eskubidearen alde gaudelako. Gure etorkizunari buruz, guk hitza hartu nahi dugulako”. Eta hitza, maiatzaren 7rako antolatzen ari diren galdeketa propioan hartuko dute zubietarrek.

Aurreko larunbatean aurkeztu zuten ekimena frontoian. Galdeketa helburua, “gure herri izaera errespetatu eta babestea da, horrela Zubietari bere herri izaera aitortuz”. Abiapuntutzat dute galdeketa, helmuga ez dute ordea maiatzaren 7an jarria. “Hau hasiera besterik ez da! Zubietarrok prest gaude ibilbide honi ekiteko, gure herri nortasuna aitortzearen alde lanean jarrai-

ZUBIARTEAN

“Hau hasiera besterik ez da! Zubietarrok prest gaude ibilbide honi ekiteko, gure herri nortasuna aitortzearen alde lanean jarraitzeko”

tzeko”, iragarri dute.

“Zubietarren arteko lotura ukazina da”

Erabakitze eskubidearen alde Usurbilen maiatzaren 7an galdeketa antolatzea erabaki zenean planteatu zuten zubietarrek nola parte hartu hitzordu honetan. Bi udalerrien, Usurbilen eta Donostiaren artean banatua egon arren, “Zubietar-

ren izaera berezia da” zioten aurkezpenean. Banaketaren gainetik, “zubietarren arteko lotura ukazina da” nabarmendu zuten. Hala, urtarrilaren 28an herri batzarra deitu eta bertan erabaki zuten galdeketa propioa antolatzea. Ordutik herritar talde bat asteartero biltzen ari da Kaxkapen, galdeketa antolatzeko. Martxoaren 4an aurkeztu zituzten galdeketa ezaugarri nagusiak. Zubiarthean izena du, galdeketa kudeatuko duen elkarteak.

Elkartearekin batera, manifestua ere plazaratu eta sindura bilketari ekin diote jada, galdera adosteko prozesua zabaltzeaz gain.

Manifestua noaua.eus web orrian irakurri dezakezue.

Zubietako bide-orria

- Galdeketa eguna: maiatzak 7, igandea.
- Galdeketa kudeatuko duen elkarteak: Zubiarthean.
- Taldearekin hartuemanetan jartzeko: zubiarthean@gmail.com
Facebook: Zubiarthean

Galdeketa antolatzeko

hurrengo urratsak:

- Martxoak 10, ostirala: 17:30-19:00 Manifestua sinatzeko mahaia, herriko plazan (manifestua email bidez ere eskura daiteke eta gero, Kaxkapeko postontzira bota). Usurbilen nahiz Donostian erroldaturiko 16 urtetik gorako zubietar orok sinatu ahaliko du.
- Martxoaren 19ra arte: galderak proposatzeko aukera mahai horretan, Kaxkapeko postontzian edota Zubiarthean Elkarteakoei emaila idatzita.
- Martxoak 21, asteartea: bilera ireki bidez adostuko da galdera 19:00etan Kaxkapen.
- Asteartero: galdeketa antolatzeko taldea asteartero biltzen da 19:00etan, Zubietako Kaxkape egoitzan.

Asier Azpirozzen bertsoa galdeketa

Zubitan ez deu behin ere galdu herri baten esperantzik Euskal Herriak ere badauka hor Zubietaren antzik bi herri nahien iturburua igualtsua degu kasik ez degu eskatzen gauza rarorik egin ezin leiken gauzik etorkizuna botoen bidez erabakitzea baizik



Asier Azpiroz, kantari.

Babes zabala jaso du ekimenak

Zubietako Jai Batzordea

“Zubietako Jai Batzordeak galdeketa hau babesten du”.

Zubietako Pilota Elkarteak

“Erabakitze eskubidea oso garrantzitsua denez gure iritzia emateko, bai nazio eta kirolari dagokionez, galdeketa hau babesten dugu”.

Zubietako Txirrindulari Taldea

“Galdeketa hau babesten dugu”.

Erraustegiaren Aurkako

Zubietako Taldea

“Galdeketa hau babesten du, eta gainera, galdeketa esparru guztietara zabaltzea nahiko luke”.

Zubietarra

“Belaunaldi berriei etorkizun hobea uzteko, zubietar bezala babesten dut herri galdeketa”.

Zubietako Guraso Elkarteak

“Bat egiten du Zubietan maiatzaren 7an burutuko den herri galdeketaekin. Gurasook hitza hartu eta erabaki nahi dugu”.

Atzoko eta gaurko udal hautetsien babesean



Atzoko eta gaurko udal hautetsi gehienek Herritzarturen ekimenarekin bat egin dute.

1979tik honako garai eta alderdi ezberdinetako hautetsiek beren babesa adierazi diote Herritzartu plataformari. “Gure sinaduraren bidez, babesa eta bul-tzada ematen diogu Usurbilen maiatzaren 7an egingo den herri kontsultari. Herriak hitza hartzeko garaia iritsi da”, hala adierazi zuten igande eguerdian udaletxe aurrean egin zen ekitaldian.

60 bat lagun elkartu ziren udaletxeko plazan, baina 73 hautetsik egin dute bat herri galdeketaekin (aldamenen dituzue babesa adierazi dutenen izen-abizenak). “Ideolo-

HERRITZARTU

“Ideologia eta sinesmen desberdinetakoak batu gara baina eskubide berberak estekatzen gaitu: geuk erabaki nahi dugu Euskal Herriaren geroa”

gia eta sinesmen desberdinetakoak batu gara Usurbilen. Euskal Herriarentzako proiektu ezberdinak ditugu zerumugan eta geure burua izendatzeko orduan ere ez da ñabardurarik falta, baina eskubide berberak estekatzen gaitu, herri modura nahiz nazio gisa: geuk erabaki nahi dugu Euskal Herriaren

geroa”, halaxe adierazi zuten aurreko igandeko ekitaldian.

Martxoaren 19an, Tonbola

Hurbilagok Bizi Kalea ekimenaren edizio berri bat iragarri du martxoaren 19rako. Berritasunik izango da honakoan: herri galdeketa babesteko tonbola antolatu dute. Adi, tonbolako sariak egun horretan banatuko diren arren, errifak aurrez erosi beharko dira. Euro batean salgai izango dira, Bizi Kalea egitasmoan parte hartzen duten tabernetan.

Martxoaren 19ko Bizi Kalea Munalurrako Txapeldun taberna atariko plazan ospatuko da, 11:00-15:00 artean.

Atxikimenduak

Beraratutakoak

Jose Miguel Aburruza Uribe, Alaitz Aizpurua, Mertxe Aizpurua, Patxi Xabier Añorga Azpiazu, Manu Aranburu Agirre, Enara Arbizu, Xabier Arregi, Andoni Atxega San Sebastian, Iñigo Azpiroz Manterola, Imanol Azpiroz Artano, Mirari Azurmendi Sorazu, Nikolas Bengoetxea Izeta, Andoni Bengoetxea Otegi, Mari Karmen Bengoetxea Ugarte, Julian Beraetxe Aramburu, Sebastian Cardenas Muñoz, Ana Isabel Eizagirre Sagardia, Nerea Erauntzetamurgil Manterola, Jexux Mari Errekondo Aizpurua, Miren Garbiñe Errekondo Salsamendi, Xabier Mikel Errekondo Salsamendi, Josune Estella, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Irene Gartzia, Karmele Hevia Gonzalez, Koldo Huegun Zapirain, Iñaki Illaramendi Etxabe, Arantza Iribar Amigorena, Joxe Mari Iribar, Gabino Jauregi Iruetagoiena, Lurdes Jauregiberri Goenaga, Martin Larrañaga Bajineta, Agustin Lizaso Azkonobieta, Patxi Lizaso Azkonobieta, Oihana Lizaso Matxain, Koldo Lizaso Urreta, Izaskun Maiz Lazkano, Juan Makazaga Eguiguren, Arantxa Manterola Aizpurua, Jose Manuel Matxain Maiz, Mari Karmen Mitxelena Illaramendi, Iñaki Mujika Aizpurua, Karmele Muxika Uitz, Markel Olaizola Aliñamendi, Juan Jose Olaizola Atxukarro, Xabier Orbegozo Salsamendi, Carlos Perez Fraisoli, Xabier Pikabea Aizpurua, Josu Portu, Justo Pulido Molano, Kerman Rekkondo Arzallus, Ramon Udabe Borda, Iñaki Ugarte, Jone Urdanpilleta, Ainara Uribe Navarro, Josune Urkola Larrarte, Xuban Zubiria, Jose M. Zubiria Eguskiza.

Atxikimendua eman dutenak

Txomin Alkorta Sarriegi, Iñaki Aranburu Alkorta, Luis Arnaiz Lasa, Jose Luis Arrastoa Zabala, Eustakio Arrojeria, Manolo Begiristain Azurmendi, Ibon Beristain Atxega, Andres Bruño Urdampilleta, Clemente Cisneros Andres, Joxe Mari Irazusta Iribar, Iñaki Larrañaga Oroz, Jose Antonio Lazkano, Julian Pikabea Aizpurua, Pepe Rivadeneyra, Jesus Urkiola Borda.

Galdera adosteko prozesua, amaitzean

- Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?
- Ados al zaude euskal estatu independentea sortu, garatu eta babestearekin?
- Nahi al duzu euskal estatu libre bateko herritarra izan?

Zure iritzia emateko bideak

Galderen artean egokiena zein iruditzen zaien adierazi ahal izango dute herritarrek martxoaren 12ra bitartean, bide

ezberdinak erabiliz:

■ Whatsapp mezuz bidez:

634 44 55 12.

■ Email bidez:

usurbilgureeskudago@gmail.com

■ Facebook eta Twitter sare sozialen bidez galdera egokiena aipatuz.

■ Etxez etxe banatu diren esku-orriak betez.

Salbatore Parrokiako erlojua auzolanean



Erlojua berritzeko lankidetzak hitzarmena sinatua dute Usurbilgo Udalak eta Salbatore Parrokiak.

1912an muntatu eta martxan jarri zuten Salbatore Parrokiako erlojua zaharberritu eta lehengoratzeko doaz auzolanean. Egitasmo honetan lankidetzan jardungo dute, batetik hitzarmena sinatua duten Usurbilgo Udalak eta Salbatore Parrokiak; 1912an Usurbilgo elizako ordularia muntatu eta garai hartan eginiko lanen ondarea gizarteratzen ari den Yeregui familiako egungo kideek osaturiko elkarteak; Usurbilgo Lanbide Eskola eta egitasmo honen sustatzaile nagusietakoa den “Erlojeruak”, bolondres lanetan jardungo duen herritar taldea.

Usurbilgo jaietarako lanak bukatuta izan eta eginiko lanaren emaitza jendaurrean erakusgai jartzea nahi dute.

ERLOJERUAK TALDEA

“Aitor Villa erlojugile profesionalaren aholkuei jarraituz, desmuntatua, mugitzea eta garbiketa lanak egingo dituzte boluntarioek”

Lan ez inbaditzaileak

Animatzen den herritar orok lagundu ahalko du apaiz-etxeko lokalean bideratuko den auzolan honetan. Herritarrekin batera arituko dira Lanbide Eskolakoak ere. “Eskolak kanpoko beste laguntza batzuekin sistemaren zati elektriko-elektronikoaren garapena egingo du. Boluntarioek, Aitor Villa erlojugile profesionalaren aholkuei jarraituz, desmuntatua, mugitzea eta garbiketa

lanak egingo dituzte”, iragarri dute.

Lanbide Eskolakoak lanean dira jada. “Helburua elektro-mekanikak erlojuaren pisua igotzea da, horretarako pendulua kontrolatuz; horrela, erlojuak zehaztasun handia izango du, penduluaren barietateak orekatzeko beharrik izan gabe”, berri eman dute.

Ez dute zaharberritze lan inbaditzailea izatea nahi, “erlojuari gehitzen zaion automatismoak ez duelako erlojuaren funtzionamendua ez baliogabetzen ez oztopatzen. Oztopatuko balitz, automatismoa deskonektatzearekin nahikoa da erlojua jatorrizko egoerara itzultzeko, 1912. urtekora, alegia”. Lanon baitan, Kale Nagusi aldera ematen duen esfera berri nahi da baita.

Hitzarmenaren gako nagusiak

Usurbilgo Udalak eta Salbatore Parrokiak parrokiako erlojua lehengoratzeko lankidetzak hitzarmena sinatua dute. Honatx akordio honen gako nagusiak:

■ Helburua: Salbatore Parrokiako erlojua eta Kale Nagusi erlojuaren esfera berreskuratzea.

■ Hitzarmenaren indarraldia: 2017ko abenduaren 31ra arte.

■ Usurbilgo Udala, Parrokia, Yeregui Elkarteak eta Lanbide Eskola ordezkatuak egongo diren Jarraipen Batzordearen eratzeta.

■ Usurbilgo Udalak 2.800 euroekin diruz lagunduko du egitasmoa eta erlojua erakusgai jartzeko bidea jorratuko du, zaharberritze lanak amaitu ostean.

■ Salbatore Parrokiak konpromisook hartuko ditu. Besteak beste:

Erlojuaren konponketa eta martxan jartzea.

Zaharberritze ez inbasiboa egingo da.

Salbatore Parrokiak jarriko du zaharberritze lanetarako gunea.

Zaharberritze lanak amaitu ostean, Udalarekin batera erlojua martxan jarri eta erakusgai jartzeko bidea jorratuko du.

Prozesu guztia jaso eta dokumentatuko da.

“Guk berreskuratutakoa bada, gehiago maiteko dugu gero”

Aurretik dituzten hilabeteon lanketa balioan jarri zuen, egitasmo honen aurkezpenean, Yeregui familiako eta elkarteko kide Xabier Alvarez Yereguik. “Auzolanak beste bultzada bat ematen dio egiten den lan honi. Herriak beste era batera maite

du gero ondarea. Guk berreskuratutakoa bada, askoz gehiago maitatuko dugu eta askoz gehiago transmitituko diegu ondorengoei”, adierazi zuen.

Interesgarritzat jotzeaz gain, proiektu honek sustaturiko au-

zolanaren balioa azpimarratu dute baita Usurbilgo Udaletik. Egitasmoan parte hartuko duten eragile guztien parte hartzea eskertu zuen proiektu honen aurkezpenean Xabier Arregi alkateak. Bete nahi diren helburuak ere azpimarratu zituen;

ondarea berreskuratzea eta berreskuratze modua hain zuzen. “Sarritan ez da aintzat hartzen behar bezala, lehengoratu bueltatzeak duen balioa, askotan gainera interbentzio eraldatzaileak egiten ditugu”, zioen Usurbilgo alkateak.

lehengoratuko dute

Berreskuratu nahi den herri ondarearen altxor honek Aginagarekin eta Usurbilekin lotura estua du. Baina ongi azaltzeko, egin dezagun denboran atzera.

Erloju honen egileak, Yeregi familia, tradizio luzeko errementari-erlojugileak ditugu. Bidea zabaltzen lehena, 1760an Leitizan jaiotako Francisco Yeregui izan zen. 1796an Beteluko San Pedro Elizarako egin zuen lehen erlojua. Ordutik familiak bost belaunaldiz jarraituko zuen lanotan. Hirugarren belaunaldikoa dugu Benito Yeregui Goldarazena. 1843an Betelun jaio eta 1872an Aginagara bizitzera etorri zen. “Martina Manterolarekin ezkondu eta Ezpaldi Berriko suteagian errementari-erlojugile lanarekin jarraitu zuen”, dio familia bereko eta Yeregui Elkartearen sortzaile Xabier Alvarez Yereguik. Besteak beste, Astigarraga, Zestoa edota Orioko parrokiarako erlojuak landu zituen Benitok. Guztira, “80 erloju, eliza eta baseliza desberdinetarako”.

Bere lanak, Aginaga, edota “Aguinaga de Usurbil” izena-



Herritar talde baten ekimenez, Salbatore Parrokiako erloju zaharra berritzera doaz.

XABIER ALVAREZ YEREGUI

“Yeregi elkartetik sentimendu berezi bat dugu erloju honekiko, gure ustez birraitonak muntatu zuen azkena izan zen”

rekin sinatzen zituen. Azkena, 80. zenbakiduna Usurbilgo parrokiarako muntatu zuen 1912an. “Benito Yeregui e Hijos de Zumaya” izenez sinatu

zuen. 1907an Zumaia baitzuen bizileku Benitok eta bere seme zaharrena zen Calixtorekin bertan sortu zuen enpresa 1910ean. 1914ra arte segiko zuten erlojuak egiten, 1929ra arte itsasontzietarako gasolina-motorrak. Nahiz Benitok muntaturikoa, 80. erlojua, 1912an egin. Handik gutxira hilko zen.

Yeregui Elkarte

Memoria lan hau gizon haren birbilobak egin digu, Xabier Alvarez Yereguik. Izen bereko

elkartea sortu zuen duela hiru urte, familiak erloju, itsasmotore eta bestelako makinak ekoiztearekin sortutako ondare historikoa gizarteratzeko. Egitasmo honetan ere buru-belarri inplikatu da. “Yeregi elkartetik sentimendu berezi bat dugu erloju honekiko, gure ustez birraitonak muntatu zuen azkena izan zen”, oroitzen du Xabierrek. Familian duten erlojugileen tradizio luze honen berri, helbide honetan jaso dezakezue: yeregielkartea.eus

Mexikar irakasleak Lanbide Eskolan

Mexikoko hainbat eskoletako irakasleak Usurbilgo Lanbide Eskolan izan berri dira. Zubietan den eskolak erabiltzen duen metodologia berritzailea ezagutzera hurbildu dira, “ikasleari guztiz praktikoa eta parte-hartzailea den ikasbidea eskaintzen diona”.

Irakasle hauen hitzetan oso esperientzia aberasgarria izan da. Usurbilgo Lanbide Eskolan ezagututakoa bere eskoletan jorratuko dutela adierazi dute.



Mexikoko irakasle talde bat izan da egunotan Zubietan.

Clown ikuskizuna Bihurri ludotekan

Martxelina eta Bitxi paila-zoek gorputz garbitasunari buruzko saioa eskainiko dute martxoaren 17an ostirala, 17:30ean Bihurri ludotekan.



Martxoaren 17an, 17:30ean.



Klik! batean

Artistak iritsi dira herrira

Otsailaren 28an, ezusteko bisita izan genuen. Etorri bezain laster, Mikel Laboa plazan lekutxo bat egin eta musika emanaldi inprobisatu bezain ederra eskaini zuten. Steffan Rundquist eta Esther Schoenmakers dira protagonistak. Suediarra bat, holararra bestea. Abuztock jaialdian ezagutu genituen. GuraSOsek Donostiako Cristina Enea/Gladys Enea parkean antolatu zuen ekitaldi hartan eskainitako abestiak berriro zituzten Mikel Laboa plazan. 'Lau teilatu' eta 'Txoria txori', besteak beste.

Argazkia: Ion Markel



Erabakitze guneetan ordezkaritza eta parte hartze orekatua izatearen alde

Martxoaren 8ari begira antolatu diren ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatzearekin batera, Emakumeen Egunari begirako mozioa onartu zuen aho batez Usurbilgo Udalak, otsailaren 28an egin zen osoko ohiko bilkuran. Mozio bateratua oraingoan; EHBilduk eta EAJ-k Eudeletik jasotakoa uzta-tartu baitzituzten.

Parte hartze orekatuaren alde

Aurtengo Martxoaren 8ari begirako mozioak, erabakitze guneetan gizon eta emakumeen arteko parte hartze orekatua bermatzea sustatu nahi du. Esparru publikoan azken urteotako murrizketek desoreka honetan sakontzea eragin duela nabarmentzen du testuak eta hainbat datu aipatzen ditu. EAE-ko alkateen %24,7 dira emakumezkoak eta herritarren %18,82 ordezkatzeko dute. 2015ean alderdi politikoei %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu. Emakumeak abiadura motelagoz igotzen dira maila eta denbora gutxiagoz irauten dute lidergoan. Elkarrekin “tradizioz rol femeninoa duten elkarrekin gehiago dira emakumeak”. Gutxiago gainerakoetan. Emakumeen elkarrekin aurre-



Emakumeen Egunari begirako mozioa onartu zuen aho batez Usurbilgo Udalak.

UDAL MOZIOA

“Parte hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea”, hori izan da plenoan onartu den neurrietako bat

kontu eta eragin-gaitasun mugatua dute udal politiketan.

Genero mainstreaming estrategia sustatuko du Udalak

Usurbilgo Udala 2. Berdintasun Plana onartzekotan den honetan, genero mainstreaming estrategia babestu eta sustatzeko konpromisoa hartu zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzak

aho batez, otsailaren 28an egin zuten osoko ohiko bilkuran. Estrategia hau, “politikaren izaera osoaren berrantolaketa da, eta honek integrala, estrukturala eta horizontala izan behar du. Sail, maila eta fase guztietan eragin beharko du, eta ezinbestekoa izango da politikan inplikaturako eragileen parte-hartzea, baita baliabide espezifikoak bere zerbitzura jartzea ere”.

Estrategia hau 1995ean, Beijingeko Emakumeen Mundu Mailako IV. Konferentzian sortu zuten. Onarpen zabala du, eta orain Usurbila dator. “Berdintasunarekiko gure konpromisoa irmoa eta alboraezina dela nabarmendu nahi dugu, eta adierazpen instituzionalaz ha-

ratago, estrategia hau martxan jarriko dugu, udal kudeaketa hobetu eta usurbildar guztion bizi kalitatea hobetzeko. Konpromiso hau etikoa izateaz gain, politikoa eta teknikoa ere bada, onarpen zabala duena, eta gobernu aldaketan aurrean egonkor mantendu nahi dena. Estrategiaren garapen eraginkorra izateko ezinbestekoa izango da lotesleak izango diren arauen sorrera, emakume eta gizonen berdintasunerako printzipioa plangintzetan txertatzea, eta egituren sorrera, strategiaren iraunkortasun eta horizontaltasuna bermatzeko”, adierazi du Usurbilgo Udalak. Estrategia berri hau garatzeko bi batzorde eratuko dituzte: politikoa eta teknikoa.

Mozioa onartuta, Udalak hartutako konpromisoak

■ Sexu bakoitzak %40tik gorako ordezkaritza bermatzea kontsulta eta erabakitze organoetan.

■ Hautatutako emakume ordezkariak funtzio-esleipen estereotipatuak edo diskriminatuak zein jazartuak izatea eragozteko mekanismoak ezartzea.

■ Parte hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea.

■ Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea.

■ Emakumeen parte hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea.

■ Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte hartze soziopolitikoa sustatzeko ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan.

■ Udalerriko parte hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzea bermatzea.

■ Udal sailetan neurriok

gauzatzeko baliabide nahi-koak jartzea.

■ Legegintzaldian zehar, zerbitzu publikoetan, bereziki emakumeei zuzendurikoetan murrizketarik aplikatu ez eta 2017-19 artean berdintasun eremura bideraturiko partidak igotzea.

“En transito”, lanera datozen emakume migrante eta zapalduetz

U surbilen bertan gertu izan arren, ikusezina eta ezezaguna izaten segitzen duen errealitate latz bati tartea egingo diote igandean, Matrakak Usurbilgo Talde Feministak eta Usurbilgo Udalak Martxoaren 8ari lotuta antolatu dituzten ekimenen baitan. Emakume migranteekin eta haien senideekin lan egiten duen Bidez Bide Elkartearen ekimenez sortu eta Oscar Tejedorrek zuzenduriko “En tránsito” dokumentala proiektatuko da Sutegin. “Barrua astinduko digu”, iragarri dute antolatzaileek.

Etxeko lanen karga, emakumeen gain

Nikaragua eta Euskal Herria artean grabaturiko ikus-entzunezko lan honetan, handik hona ezinbestean, etorkizun hobe baten bila, haur nahiz helduen zaintza eta etxeko lanak egitera datozen emakumeen bizimodua eta sorterrian uzten dituzten senideena erre-



“En tránsito” filma igande honetan emango dute Sutegin.

SORAYA RONQUILLO

“Gizonezkoak ez dira lanotaz ardurutzen”.

Eta honenbestez, zaintza eta etxeko lanon karga guztia, bertako nahiz emakume migranteen gain geratzen da

tratutzen du. Une hunkigarrikeri ere erakutsiko du. Esaterako, 4 urtetan gure artean bizi eta lanean aritu ostean, sorterrira itzuli eta senideekin topatzen direnekoa.

Bidez Bide Elkarteko lehendakari Soraya Ronquillok NOAUA!ri adierazi dionez, “ez da kasualitatea emakumeok lanok egitera etortzea”. Bere esanetan, sorterrian bezala, hemen ez baitago lana eta familia bateragarri egiten duten politika eraginkorrik, ezta baliabiderik ere mendekotasun egoeran diren herritarrentzat. Ronquillok gaineratzen duenez, “gizonezkoak ez dira lanotaz ardurutzen”. Eta honenbestez, zaintza eta etxeko lanon karga guztia, bertako nahiz emakume migranteen gain geratzen da.

Esklabutza egoerak

Emakumeon lan baldintzak salatzen ditu Bidez Bide Elkarteak. Bereziki, etxe batean lan egin eta bizi diren hainbatena. “Internen lanak ez luke existitu behar, XXI. mendeko esklabutza lana da”, azpimarratzen du Ronquillok.

Egoera konplexua bizi dute emakumeok; diru beharrean dira, irabazitakoa sorterriko senideei helarazi behar diete, eta egoera legezartzeko denbora bat egin beharra dute gure artean lanean. Eta hor dator emakumeokiko probetxua. Guk nahi ez ditugun eta

errekonozimendurik ez duten jardueretan lan egiten dute, kasu askotan lan baldintza ez duinetan. Lanaldi amaigabeak izaten dituzte, batzuetan erasoak jasan ere bai. Bizitakoa isilpean daramate halere, sorterritik eta senideengandik urrun, bakarrik eta laguntzarik eskatu gabe, asko baitute jokoan. “Ikusi nahi ez dugun patriarkatuaren zapalkuntza mota argi bat. Hemen gaude nok lan handia dugu haiek laguntzen eta errealitate hau ez ezkututzen”, adierazi digute proiektzio antolatzaileek.

Errealitate latz honen aurrean, aurrera begira zer nolako gizartea eraiki nahi dugun, “zeren edo nortzuen bizkar”, pentsatzera hausnartu nahi dute igandeko proiektzioaren ondoren, Bidez Bide elkarteko lehendakaria partaide izango duen solasaldian. Erakundeek politika eraginkorren bidez, zaintza lanen erantzule egin beharko luketela dio Ronquillok, “guztia emakume migrante nahiz bertako emakumeengan delegatu gabe”. Argi denez, egiteko asko dago.

Datozen ekitaldiak

Martxoak 10, ostirala

- 21:00 “Testurak” bertso-afaria Artzabalen.
- Parte hartuko duten bertso-lariak: Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labaka.
- Gai jartzailea: Maite Berriozabal.
- Menua: pikatzekoa, entsalada epela, entrekota eta gazta tarta. Edaria eta kafea.
- Prezioa: 16 euro.
- Txartelak: Aitzagan eta Bordatxon salgai.

Martxoak 12, igandea

- 18:00 “En tránsito” dokumentala eta solasaldia Sutegin auditorioan.
 - Zehaztasunak: “Bidez Bide Elkarte, Donostiatik Gipuzkoa mailan lan egiten duen elkarte txikia da. Feministotik lan egiten dute. Hori dela eta, Oscar Tejedor zinemagilearekin batera egin dute “En Tránsito” dokumentala. Lan honek zaintza lanak kokatzen ditu erdigunean, Latino Amerikatik EH-ra migratutako hainbat emakumeek, euren seme-alabekin ezartzen dituzten harremanak nolakoak diren eta zaintzaren gestioa nola egiten duten erakusten dularik. Finean, dokumentalok zaintza lanen kate globalek emakumeen bizitzetan duen eraginaz, amatasun transnasionaletaz edo zaintza lanen feminizazioaz hausnartzera garamatza. Proiektzioaren ostean, Soraya Ronquillorekin mintzaldia egiteko aukera izango dugu”.
- Oharra: gaztelaniaz.

Martxoak 18, larunbata

- 10:00-14:00 / 15:30-19:30 Autodefentsa feminista taiera Potxoenean.
- Izen ematea aurrez, Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailean: 943 377 110
parekidetasuna@usurbil.eus
Antolatzaileak: Matrakak Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udala.

58 usurbildar Donostiako 28. Lilatoian

58 emakume usurbildarrek parte hartu zuten igandean Donostian ospatu zen 28. Lilatoian. Guztira, 4.821 emakumeek. Segidan duzue herriko emakumeen sailkapena (sailkapen orokorra kirolprobak, com atarian) eta proba ospatu aurretik ateratu zituzten irudiak. Josune Estella Arranzek bidali dizkigu argazkiok.

Sailkapena

Idoia Ezeiza Iruretagoiena	00:20:59
Loli Elkano Iurrtia	00:23:28
Enara Urdanpilleta Villagrasa	00:23:39
Maitane Eizagirre Bruño	00:23:49
Marimar Uribe Navarro	00:24:39
Ainara Uribe Navarro	00:24:40
Elhuiar Urdanpilleta Martikorena	00:25:29
Saioa Ero Aizpurua	00:25:46
Ane Bengoetxea Artetxe	00:26:04
Eneritz Agirre Urdangarin	00:26:30
Joana Lertxundi Beristain	00:26:30
Doltza Urdanpilleta Villagrasa	00:27:24
Mari Mar Lizaso Ibarbia	00:31:21
Ruth Aramendi Aguinaga	00:31:33
Beatriz Irasuegi Salsamendi	00:31:48
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria	00:32:50
Ane Ibarгойen Alvarez	00:33:23
Jone Pikabea Muxika	00:33:25
Amaia Murugarren Merino	00:33:33
Andrea Iturain Aizpurua	00:33:42
Olatz Urdangarin Salsamendi	00:34:31
Arantxa Usarralde Aranzadi	00:34:38
Elixabete Udabe Pagola	00:34:38
Gurutze Benitez Galarza	00:34:45
Alazne Olaizola Iparragirre	00:35:13
Intza Macuso Iribar	00:35:23
Idoia Aranburu Goikoetxea	00:35:23
Idoia Amas Etxarri	00:35:23
Lurdes Salaberria Garmendia	00:35:26
Lara Montes Guerra	00:35:28
Saioa Sarasola Miguel	00:35:29
Izadi Azkonobieta Etxabe	00:35:30
Ekiñe Zalakain Martija	00:35:30
Begoña Aranguren Aranburu	00:35:53
Inma Balda Arruti	00:35:55
Leire Lizarralde Agirrezabal	00:36:29
Josune Iparragirre Tolaretxipi	00:36:53
Olatz Zuloaga Segurola	00:36:53
Nekane Zaldua Iturriotz	00:36:53
Izaskun Goikoetxea	00:36:54



Gero eta gehiago dira Lilatoia egitera animatzen direnak. Aurten, 4.821 emakume. Argazkiak: Josune Estella.

Aitziber Eizagirre Zaldúa	00:36:54
Ana María Martín Alberdi	00:37:05
Carlota Blazquez Martín	00:37:05
Agurtzane Alkorta Urdanpilleta	00:37:16
Itziar Dorronsoro Ariz	00:37:16
Iratxe Begiristain Otegi	00:37:16
Miren Josune Estella Arranz	00:37:18
Marimar Estella Arranz	00:37:20
Amaia Kaperotxipi Arruti	00:37:40

Maidier Izagirre Sarasola	00:37:49
Agurtzane Solaberrieta Mesa	00:37:50
Maria Jesus Arruti Arregui	00:37:53
Uxue Altuna Tapia	00:38:22
Monica Ramos Merayo	00:38:24
Amaia Aizpurua Atxega	00:39:20
Maite Iturbe Barrena	00:39:33
Leire Diaz Ventura	00:40:20
Maite Santamaria Tejedor	00:43:10

Usurbilgo judokak, Espainiako Kopa Txapelketako podiumean

Usurbil Judo Klubeko kide Ion Martinek eta Xabier Sanchezek aurreko larunbatean Gironan jokatu zen Espainiako Kopa Txapelketan parte hartu zuten, 73 kiloko mo-

dalitatean. Nazioarteko master lehia honetako hiru borrokaldiak irabazi, eta finalean, Ionek zilarrezko domina eta Xabierrek urrezkoa irabazi zituzten. Zorionak bioi!



Ion Martinek zilarrezko domina eskuratu zuen, Xabier Sanchezek urrezkoa.

13. Soinurbil martxoaren 20an abiatuko da

Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatutako Musika Astea martxoaren 20tik 26ra ospatuko da. Hona egitarau aurrerapena, xehetasun gehiago datorren astekariorian:

■ Martxoak 20, 18:00/19:00 Organo erakustaldia Salbatore Elizan.

■ Martxoak 21, 18:30 "Kontu kantari" jolasean ikasi, musikaz hazi Sutegin.

■ Martxoak 22, 19:00 Organo eta txistu kontzertua Salbatore Elizan.

■ Martxoak 23, 19:00 Beasaingo musika eskolako bisita Sutegin.

■ Martxoak 24, 20:00etan Rockalean ikuskizuna kalean.

■ Martxoak 25, 12:00 Zumarteko pop-rock taldeen kontzertua Mikel Laboa plazan.



Azkoitiko Musika Banda arituko da martxoaren 26an. Argazkia: maxixatzen.eus

■ Martxoak 26, 12:00 Azkoitiko musika bandaren kalejira eta kontzertua.

"Lalala soinu gela", 0-3 urteko haurrentzako musika tailerra
Lalala soinu gela haurrei eta

beren familiei zuzenduriko musika tailerra da. "Soinuaren bitartez txikien gaitasun musikal, psikomotore, kognitibo eta sozioafektiboak garatuko dira, haurra eta bere familiaren arteko lotura indartuz",

Zumartetik aditzera eman dигutenez.

■ Martxoak 18 larunbata, Zumarte Musika Eskolan.

■ Prezioa: 15 euro, familiako.

■ Izen ematea: Zumarten, (Martxoak 6-10 bitarte).

T a p a k e t a a u r k i b i d e a k p r e s t

Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3€ ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2016



641-682 zenbakiak



Orrialde honetako argazkiak: Iñaki Agirresarobe.

“Guernica” Gernikara ekartzeko eskaerarekin bat egin du Udalak

Apirilaren 26an 80 urte beteko dira Gernika bonbardatu zuenetik. Handik gutxira sortuko zuen Pablo Picasso margolariak udalerrri honen izena daraman koadro ezaguna. Mundu mailan ezagun askoa egin den sortze lan honek ere beraz, 8 hamarkada beteko ditu hilabete gutxi barru. 1992az geroztik Madrilgo Reina Sofia museoa dagoen artelan hau Gernikara ekartzeko eskatu zuen aho batez Usurbilgo Udaleko udalbatzak, otsailaren 28an egin zuten osoko ohiko bilkuran. “Urteurren hau, Gernika zein euskal herritarren beste eskaera eta garrasi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz”, Euskal Herritik behin baino gehiagotan eskatu izan den moduan.

EHBilduk gai honen inguruan aurkeztu zuen mozioak udal ordezkari guztien babes jaso zuen, egoki-



EHBilduren mozioa PSEren ekarpenarekin osatu ondoren, ahobatez onartu zen.

UDALBATZAK AHOBATEZ

“80. urteurrenean, eskaera hau egiteko une egokia ikusten dugu: ‘Guernica’ margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz”

tzapenak egin ostean. PSE-ko ordezkari Fermin Oruek mozio alternatiboa aurkeztu zuen, udalbatzak onar zezan. Testu honek nabarmentzen duenez, Picassoren “Guernica” Gernikara ekartzeko ez da aski, EHBilduren mozioan eskatzen den borondate politikoa. Baita teknikarien onspena ere.

Orueren esanetan, “koadroa ez dago mugitzeko baldintzetan”. Honenbestez, borondate politikoz gain, koadroa Gernikara ekarri behar bada, “teknikarien babesarekin” izan dadila eskatzen zuten.

Udal gobernu taldeetik eskaera honekin bat egin zuten. “Hori ere baldintza bat iruditzen zaigu, leku aldaketarekin ezin liteke kaltetuta gertatu”, zioen alkateak Picassoren artelanaz. Hala, mozioko bigarren puntuari “Lekualdatze hau artelana kaltetu gabe egin behar da, izaera unibertsala duen pieza behar bezala zainduz” esaldia eranstea adostu zuten.

Siriako gerrari buruzko dokumentala

Mundu Berri Elkarteak antolatuta, “Nacido en Siria” dokumentala proiektatuko da martxoaren 17an, 19:00etan hasita Sutegin.

2016an Goya saria jaso zuen ikus-entzunezko lan honek Siriako gerratik ihes egin behar izan duten lau milioi he-

rritarren (erdia baino gehiago haurrak) kalbarioa islatzen du. Proiektzioaren ostean, bi herritarrek, Juanito Orellak eta Jose Luis Aranburuk Serbiara egindako bidaiaren bizitakoaren berri azalduko dute. Solasaldi berean parte hartuko dute baita, Mundu

Berri Elkarteko kideek. Ekitaldirako sarrera egunean bertan eskuratu ahalko da 2 eurotan. Sarreretatik ateratako dirua serbiarrentzat izango da. Juanito Orellari eta Jose Luis Aranbururi egin diogun elkarrizketa plazaratuko dugu datorren astekarrian.

“Kokapenik egokiena, Gernika”

Azkenean mozioko lau puntuak modu honetan geratu dira:

■ 1-Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egin dako sarraskian oinarritutako Picassoren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

■ 2-Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere. Lekualdatze hau artelana kaltetu gabe egin behar da, izaera unibertsala duen pieza behar bezala zainduz.

■ 3-Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaltu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

■ 4-Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernua eta Kultura Ministeritzari.

Gure Elkartea
~ Santuenea ~

- Eguneko platera 6€
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxuelitak...

Santuenea Auzoa 11, Usurbil 686 55 41 45

Zuen publikitatea hemen

☎ 943 360 321

publizitatea@noaua.eus

Txori kabiak eskuragarri

Iaz bezala, berriz ere txori kabiak eskuragarri jarri ditu Alkartasuna Nekazal Kooperatibak. Doan lortu daitezke, Atallun duten egoitzara gerturata.

Kontuan hartu beharrekoak

Habi-kaxak erabiltzen dituzten hegaztiak:

Hegazti intsektujaleak (kaskabeltza, amilotx urdina, gerri txori arrunta, landa txolarrea, txepetxa...) normalean. Hegaztiok habiak egiteko zuloak behar izaten dituzte. Habi-kaxak ezinbesteko bihurtzen dira, zulo natural nahikorik ez da goen kasuetan.

Non jarri kaxak:

Baso gazteetan, basotxoetan, parkeetan, lorategietan, erreka ertzetan eta antzeko lekuetan. Ez jarri bat bestearen ondoan. 10 kaxa hektareako, hori izan ohi da kopuru egokia.

Nola jarri eta zeri erreparatu

2-5 metro arteko altueran jarri, hegoekialdera begira, pixka bat aurrerantz inklinatua, inor bertara ez iristeko



Alkartasuna Nekazal Kooperatibaren eskura daitezke, doan.

AHOLKUAK

“Kaxak hustu, garbitu eta konpondu urtero udazken partean, hurrengo kumaldirako”

moduan baina ezta leku zailtan ere, jarraipena egin ahal izateko. Adar batean zintzilikatu, horretarako emandako alanbrearekin. Ez jarri zuhaitzaren enborraren aurka, ezta modu finkoan ere, kaxak mugitu behar baitu. Ez ireki kaxarik erruten ari diren artean, ezta kume txikiak di-

tuen artean. Maiatza bukaera edo ekaina hasieran irten ohi dira kaxatik.

Garbiketa eta konponketa lanak:

Kaxak hustu, garbitu eta konpondu urtero udazken partean, hurrengo kumaldirako.

Aholkua:

Jarraipena egin, eta jarraipen horren emaitzak txosten batean jaso.

Informazio gehiago:

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, Mikel Landa eta Enrike Huizi bigarren

Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, bigarren izan da Pagazpe pilota elkarteko bikotea. Nagusien Lehen Mailako finala jokatzen zen aurreko larunbatean Iruran. Villabonako bikoteak Usurbilgoa hartu zuen mendean, 40-26 azken emaitza.

Gipuzkoako Trinkete Txapelketa, Nagusien 1. Maila Martxoak 4 larunbata

Huizi - Landa 26
Maiz - Gurutzealde 40



Mikel Landa eta Enrike Huizi, azpitxapeladunen oroigarriak eskutan.

Jubilatu Astea hastera doa

Gure Pakea Elkartek hitzorduok antolatu ditu hurrengo asterako:

Martxoak 13, astelehena

17:00 “Ekonomia, interes tipook” hitzaldia Artzabalgo ekitaldi aretoan.

Martxoak 14, asteartea

17:00 “Aiton amonen aterpea” antzezlanana Artzabalgo ekitaldi aretoan.

Martxoak 16, osteguna

17:00 “Emozioak bizi” hitzaldia Artzabalgo ekitaldi aretoan, Matia Fundazioko kide baten eskutik.

Martxoak 17, ostirala

09:00 Jubilatu Astea: Hernanira ibilaldia eta bazkaria. Artzabal, Santuenea, Lasarte-Oria, Urnieta eta Hernani lotuko ditu ibilaldiak. 14:00etan bazkaria jubilatuen etxean.

Martxoak 19, igandea

14:00 Jubilatu Astea: bazkaria Atxega Jauregian. Antolatzaila: Gure Pakea Elkartea.

Gipuzkoako Karta Txapelketa

Gipuzkoako jubilatuen elkarrekin lehian jartzen dituen txapelketako herri mailako finala, larunbat honetan, martxoaren 11n jokatuko da 17:00etan hasita, Aginagako Arrate Egoitzan.

Mari Karmen Anza Donostia ospitalera ekarri dute

Patxi Uranga euskal presoak Valentziako Picassent espetxean geratuko da azkenean, bikote lagun eta alaba, Olatz Lasagabaster eta Xua jaioberria dauden espetxe berean honenbestez. Bestalde, Olatz Lasagabasterren ama Valentziatik Donostia ospitalera ekarri dute.

Amador Granados Alkorta, munduko txapeldunorde

Mundu mailako txirrindulari onenetakoa Usurbilen bertan dugula erakutsi du beste behin, Amador Granados Alkortak. Igandean munduko txapeldunorde amaitu zuen Los Angelesen (AEB) jokatu zuen Munduko Txapelketako abiadura proba.

“Zorionak Amador Granados Alkorta! Munduko azpitxapelduna abiadura proban, Santas eta Jaramillo txirrindulariekin batera, Los Angelesen!”, berri eman du Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak.



Santas eta Jaramillo taldekideekin batera, Amador Granados Alkorta munduko azpitxapeldun izan da abiadura proban. Argazkia: Carlos Jimenez.

Federazioarekin batera, hainbat lagunek zoriondu dute sare sozialen bidez Ama-

dor txirrindulari usurbildarra. Mezu horrekin bat egiten dugu guk ere. Zorionak!

Martxoaren 19an, Gipuzkoako Orientazio Ligako proba Andatzen

Gipuzkoako Orientazio Taldeak azarotik ekainera antolatutako 2. Gipuzkoako Orientazio Ligako laugarren proba, Andatza mendiaren magalean, Txokoalde inguruan ospatuko da martxoaren 19an.



Gipuzkoako Orientazio Ligako laugarren proba izango da.

Euskal Herriko Unibertsitateko txapelketa ere bada honakoa. Hauxe gain, 150 parte hartzaileentzako lekua dago kirol ekimen honetan. Izen ematea zabalik dago, gotorientazioa.org atarian. Bertan jaso ahalko duzue informazio gehiago.

Martxoak 19 igandea

- 9:30 Harrera gunearen irekiera Txokoaldeko pilotalekuan.
- 10:00 Lehen irteerak.
- 12:00 Azken irteerak.
- 14:00 Itxiera.

Antolatzailea: Gipuzkoako Orientazio Taldea.

Arantza-Beintza irteera igandean

Bidasoako Kontrabandistak ibilbidea osatzeko 3. etapa honetarako, martxoaren 8a baino lehen izena eman zutenentzako igande goizeko 07:30erako Oiaro Kiroldegian finkatu du Andatza M.K.T-k biltzeko hitzordua.

Informazio gehiago:
www.andatza.com



Beintzako herrian amaituko dute igandeko irteera.

Eskubaloi partidak

Martxoak 11 larunbata

- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Urnieta 5A
- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5C-Udarregi 5B
- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Urnieta 6A
- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6C-Udarregi 6B
- 11:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D-Egia 1
- 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B-Bidasoa A

Martxoak 12 igandea

- 10:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Ereintza
- 11:30 Jubenil mutilak, Foru Aldundiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Tolosa CF

Futbola Haranen

Martxoak 11 larunbata

- 09:30 LH 3koen topaketa: jolasak.
- 10:15 LH4koen topaketa: jolasak.
- 11:30 Infantil neskek: Usurbil A-Añorga A
- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Zarautz K.E.

Martxoak 12 igandea

- 10:00 2007-2008 Topaketa: Usurbil F.T.-Trintxerpe.

Eskubaloi errifa

3.949 izan da Usurbil Kirol Elkarreko azken errifa zozketako zenbaki saritua. Kristina Berloso herritarrari mariskada eder bat tokatu zaio.





EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK - TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Otar-Goxo

Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2

☎ 943 36 55 81

20170 Usurbil



Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

ETXEBIZITZA

Salgai

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. Tel. 630 490 844.

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trasteleku. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trasteleku. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trasteleku. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, telatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukalde, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta sukalde. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta

gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindro. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 me-

tro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zubietan, etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Lanaldi erdirako 695 783 202.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreratuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gazte, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatekx batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak



Zorionak hirukote!!
Martxoaren 11n zuen eguna da-ta, muxu pila pila denon partez!



Zorionak Naiara!!
Martxoaren 8an, 9 urte beteko dituzu. Ondo pasa zure eguna, muxu handi bat etxeokoen partez, gure txapeladuna zara.



Zorionak Jon eta Iera!!
Martxoaren 7an eta 11n zuen egunak ospatuko ditugu. Ondo ondo pasa eta muxuak denon partez.



Zorionak Nadeth!
Aste honetan 9 urte beteko dituzu. Egun on bat pasa eta muxu asko etxeko guztien partez.



Zorionak Oihan!!
Martxoaren 11n, 9 urte beteko dituzu. Ondo ondo pasa eta ospatu zure eguna. Muxu asko familia osoaren partez.



Zorionak Iera! Gure etxeko txiki-handiak 9 urte beteko ditu martxoaren 11n. Merienda ona prestatu eh! Ondo ondo pasa eta txokolatezko 9 muxu handi handi, familia osoaren partez.

Heriotzak

Daniel Alzugaray Zabaleta

86 urterekin hil zen, martxoaren 1ean



Fernando Azpíroz Illarramendi

94 urterekin hil zen, martxoaren 1ean



edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketara lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketara lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketara lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno mo-

duan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabaldua duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna

haurrak zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jatetxe-aren batean harraskako garbiketara egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko la-

netan eta banaketan. 657 535 299.

BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkorxtadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurrume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higienerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiaro Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkarteetan. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaia! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskatel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 11 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 12 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 13 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 15 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Martxoak 09 - martxoak 19

Osteguna 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

Ostirala 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 19 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda martxo

10 ostirala

- **Gazteen batzarra.** 17:30ean Potxoenean. Deitzaileak: Aginaga, Zubieta eta Usurbilgo gazteak.
- **Bertso afaria** Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin. 21:00etan Artzabalen.

11 larunbata

- **"Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa", Josu Osaren eskutik.** 9:00etan Potxoenean.
- **Gipuzkoako Karta Jokoen Txapelketako herri mailako finala.** 17:00etan Aginagako Arrate Egoitzan.

12 igandea

- **Arantza-Beintza mendi irteera** 7:30etan autobusez Oiardo Kiroldegitik. Izen-ematea martxoaren 8an amaitu zen.
- **"En transito" dokumentala** 18:00etan Sutegiko auditorioan.

Ostiral honetan, bertso-afaria

Martxoaren 8ari begira ekimenak antolatzen ari dira Matrakak, Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila. Lehen hitzordua, martxoaren 10erako deitu dute. Azken urteotan arrakastatsua suertatu den bertso-afaria ospatuko da Artzabalen, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin.

Txartelak jada salgai

Txartelak aurrez erosi ahalko dira 16 euron, Aitzaga eta Bordatxo tabernetan.



Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin ariko dira kantuan.

Gazteen bilkura Potxoenean

"Aginaga, Usurbil eta Zubietako gazteak martxan gara. Ez gara inoren zain egongo, eta gazteok bizi ditugun arazo ezberdinei geronek emango diegu soluzioa. Hemen ere, hainbat dira gazteen kezka eta hutsuneak, eta horiei aurre egiteko, alternatibak sortzen hastera goaz", aurreko astean halaxe mintzo zen 'Aginaga Usurbil eta Zubietako gazteak' taldea. Ostiral honetan, martxoak 10, Potxoenean batuko dira arratsaldeko 17:30ean: "helburutzat ildoak jorrazteko ekimen eta ideia zehatzak proposatzea daukagu". Bilera irekia gazte guztiei zuzendua dago.

Datorren ostegunean, NOAUA!ko batzarra

Ekitaldian parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu:

- Martxoak 16 osteguna, 18:30/19:00 NOAUA! K.E.-ko bazkideen batzarra Potxoenean.
- 1.- 2016ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2.- 2017ko egitasmoak eta aurrekontuak.
- 3.- Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- 4.- Galdera erantzunak.
- Martxoak 26 igandea, XIV. Laburbira Sutegiko auditorioan, 19:00etan. Sarrera doan.

Datozenak

Gaztetxeko hitzordu beganoa, berriro martxan

Neguko atsedeen txikiaren ondoren, Usurbilgo Gaztetxeak jantoki beganoa ipini du berriro martxan. "Hilerro, bigarren ostegunean egingo dugu animaliarik erabili gabeko afari herrikoia".

Denboraldi berriko lehen zita, ostegun honetan, martxoak 9. "20:30etik aurrera izango ditugu dastagai hainbat kutixi, betiere borondatearen truke. Animatu elkarrekin afaltzera!", gaztetxetik aditzera eman dutenez.

Martxoaren 19an, Bizi Kalearen edizio berri bat

Honakoan, Txapeldun tabernaren aurreko plaza izango da 'Bizi Kalea' jardunaldiaren topalekua. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 15:00ak arte luzatuko da festa.

Gastronomia, musika, mokaduak, poteak, azokak, zozketak... Eta honakoan, Herritzarturen tonbola.

Antolatzaileak: Hurbilago eta Hurbilago Elkarteko tabernariak, Usurbilgo Udalaren laguntzarekin.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Noaualk Udajolas-erako arduraduna eta begiraleak behar ditu, uztailean lan egiteko.

PROFILA:

- 2 urteko esperientzia
- Zuzendari titulua izatea
- Begirale titulua izatea
- EGA edo balioakidea den agiria izatea
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute

Interesatuak:
Curriculumak martxoaren 31 baino lehen ekarri edo bidali:
Noaual Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaual.eus




noaual 

NOAUA! aldizkariaren banaketa

Ordezkoen lan-poltsa osatzeko deialdia

Gaur egungo banatzaileen batek bere lana utziko balu, ordezkoa beharko genuke. Horretarako osatu nahi dugu lan-poltsa. Curriculumak bidali elkartea@noaual.eus-era edota ekarri Noaualren egoitzara: Bordaberri 3, Usurbil

noaual

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E: contacto@viviendasslanin.com

943 46 88 60

www.viviendasslanin.com




Erabakitzeke Eskubidea eta
Maiatzaren 7ko Herri Galdeketa babesteko

MARTXOAK 19

11:00tatik aurrera, *Bizi kulea* jaiaren baitan.
Txapeldun tabernaren aurreko plazan.

tonbola



eta elkarlanean!

13:00

HERRIKO MUSIKARI EZBERDINEK
HERRI GALDEKETAREN ALDE SORTUTAKO

abestiaren aurkezpena

ONDOREN

MAIATZAREN 7KO HERRI KONTSULTAKO

galderaren aurkezpena

